

Krutwig jaunak "Retrosceso del vascuence y remedios" deritxon lan polit bat irakurri dau. Pozik entzun da.

Euskaltzainburu jaunak adierazoten dau Gipuzkoa'ko Ekautak, egin jakon eskariari erantzunaz, urteko iru mila peseta zoroskiz eskifii dabela. Au bere pozik entzun da eta eskerrak emotea erabagi da.

Azkue jaunak aurreko batzarretan irakurten izan dabean lanari darago.

Azkenez Etxaide jaunak irakurri dau "Elementos de las flexiones verbales con significación propia" deritxon lan oargarria. Atzeginez entzun da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

* * *

Bilbao'n 1943'gko Bagila'ren 25'an, Euskaltzaindia'ren etxean eta Azkue jauna maipuru dala ta Zamarripa ta Oleaga euskaltzainak lagun dabezala, Euskaltzaindia'k egiten dau il oneri dagokon batzarra.

Araudizko otoitza egin-eta, atzenengo batzar-agiria irakurri da ta ago batez onetsi.

Azkue jaunak Schmidt jaunaren "Las familias de lenguas y los círculos de lenguas en la tierra" deritxon lana dala-ta, bere adimen batzuk adierazoten ditu.

Zamarripa jaunak "Conjugación familiar masculina y femenina" deritxon lantxo bat irakurten dau. Azkue jaunak oar egokiak egiten dautsoz.

Eta beste barik, araudizko otoitzaz amaituten da batzarra.

* * *

Bilbao'n, Euskaltzaindia'ren etxean, 1943'gko Azila'ren 26'an, Zamarripa, Etxaide ta Oleaga euskaltzainak, Azkue jauna maipuru dala, batzen dira il oneri dagokon batzarra egiteko.

Araudizko otoitzaz asten da batzarra.

Len-aurreko batzarra'ren agiria irakurri da ta ago-batez onetsi.

Etxaide jaunak diño orain-arte ezin gertu izan dabela, Krutwig jaunaren "Unificación de los dialectos vascos" deritxon lanaren-gazko txostena, eta lan ori irakurten darago.

Gero Azkue jaunak "Cuestiones de Semántica" deritxon lantxo bat dirakur, entzuleen oartxo batzuk arturik.

Azkenez Zamarripa jaunak "La conjugación familiar o dialogada" deritxon lantxo bat irakurri dau, beste euskaltzainkide'en oarrak entzunik.

Beste barik eta araudizko otoitzaz, amaitu da batzarra.

* * *

Donostia'n Ekautaren Jauregian, 1944'gko Ilbeltza'ren 28'an, Azkue jauna maipuru dala ta Urkijo, Etxaide ta Oleaga Euskaltzainak dagozala, egiten da Euskaltzaindiaren il onetako batzarra.

Batza ori araudizko otoitzaz asten da.

Lenaurreko batzarren agiria irakurri ta aobatez onetsi da.

Etxaide jaunak, "Unificación de dialectos vascos" deritxon Krutwig Euskaltzain urgazlearen lanagazko txostena dirakur. Urkijo Euskaltzainak dino astiroago irakurri nai leukela lan ori ta olan ebatsi da.

Krutwig beraren beste lan bat "Afinidades lingüísticas entre el vascuence y las lenguas japonesa y coreana" deritxona, irakurri da.